

4 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA

GFA - LANDA INGURUNEAREN GARAPENA

2005eko abenduaren 23ko Foru Agindua, Gipuzkoako hegoaldeko zuhaitz igelaren ugalketa leku berrien sarearen katalogoa ezartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LANDA INGURUNEAREN GARAPENERAKO DEPARTAMENTUA

*2005eko abenduaren 23ko FORU AGINDUA, Gipuzkoan hegoaldeko zuhaitz igelaren (**Hyla meridionalis**) ugalketa leku berrien sarearen katalogoa ezartzen duena.*

Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak 1999ko azaroaren 10ean onartu zuen Hegoaldeko Zuhaitz Igela (**Hyla meridionalis**) Gipuzkoan Kudeatzeko Plana (azaroaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 221 zk.), eta bertan Mendizorrotz inguruan espeziearen kontserbazioa bermatzeko neurriak hartzen ziren.

Gerora, 2001eko maiatzaren 28ko Foru Aginduaren bidez (ekainaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 120 zk.) atal berri bat erantsi zitzaion Kudeaketa Planari eta neurri osagarriak eman ziren. Hartutako neurrien artean behar beharrezkotzat jotzen zen Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentuak espezie horren ugalketa toki berrien sarearen katalogoa egitea eta, ugalketa garaia bukatutakoan, datuak eguneratzea.

2003ko maiatzaren 23ko Foru Aginduan (ekainaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 105 zk.), hegoaldeko zuhaitz igelaren (**Hyla meridionalis**) Gipuzkoako ugalketa leku berrien sarearen katalogoa ezarri zen. Ondoren, 2004ko maiatzaren 14ko Foru Aginduaren bidez (maiatzaren 31ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 101 zk.) katalogo hori eguneratu zen.

2005. urteko ugalketa aldia amaitu ondoren eta ugalketa tokietan egokitzapen eta hobekuntza obrak eginda, hegoaldeko zuhaitz igelaren (**Hyla meridionalis**) Gipuzkoako ugalketa leku berrien sarearen Katalogoa eguneratu zen.

Hori dela eta, foru diputatuak,

XEDATU DU

Artikulu bakarra:

Hegoaldeko zuhaitz igelaren (**Hyla meridionalis**) Gipuzkoako ugalketa leku berrien sarearen katalogoa eguneratzea, ondorengo ugalketa lekuak bilduz:

1. Goienetxeko putzua:

—Deskribapena: 2000ko martxoan egina. Neurriak: 14,30 m luze, 9,50 m zabal eta 0,90 m-ko gehieneko sakonera. Donostiako udalerrria. Koordinatuak UTM: X 579576, Y 4795707. Ura udaleko hornidura saretik hartzen da, eta ixteko giltza eta kontagailua daude.

—Diagnostikoa: Ugalketarako baldintza egokiak biltzen dituen putzu honetan igel populazio egonkor bat bildu da. Kontrolatu behar diren aspektu nagusiak honako hauek dira: Uraren maila, gutxitu egiten delako iragazketen ondorioz, landaretzaren garapena, bai putzu barruan bai ingurukoan, eta, azkenik, harrapari aloktonoen (zamoak) sarrera.

2. Errotatzoko urmaela - Neinor:

—Deskribapena: 2001eko irailean industrialde batean hormigoiz egina. Donostiako udalerria. Koordinatuak UTM: X 579360, Y 4795103. Ura hornitzeko hartune bat dauka udaleko hornidura saretik, metalezko kaxa baten barruan dagoen pasoko giltzarekin, baina batik bat euri uraz hornitzen da.

—Diagnostikoa: Gurelesako urtegian bizi ohi zen igel populaziotik gelditzen diren igelak harrapatu eta lekualdatzeko erabiltzen den putzua. Horregatik, ugalketa garaian, putzuan bertan, zangan eta inguruan dauden igeltxoak harrapatu egiten dira beste putzu batzuetan sartzeko. Kontrolatu behar den aspektu nagusia harrapari aloktonoen sarrera da, zamoena batik bat.

3. Pokopandegiko urmaela:

—Deskribapena: 2001eko irailean hormigoiz egina. Donostiako udalerria. Koordinatuak UTM: X 579164, Y 4795449. Forma oktagonala du, 10 m-ko luzera, 7 m-ko zabalera eta 1,16 m-ko gehieneko sakonera. Ondoko errekan egindako hartune baten bidez hartzen du ura.

—Diagnostikoa: Igel populazio txiki bat dago eta azkeneko kanpainan ez da egiaztatu ugalketa arrakastatsurik izan denik. 2003. urtean putzu horretan egin diren hobekuntzen bitartez ezin izan da gehitu oso murriztua irauten duen populazioa. Litekeena da aldameneko Errotatxo-Neinor putzutik igel helduak ateratzeak bere eragina izatea putzu horren populazioan.

4. Munotxabaleko putzua:

—Deskribapena: 2000. urtean egina eta 2004ko otsailean iragazkaiztua. Neurriak: 15 m luze, 18 m zabal eta 1,60 m-ko gehieneko sakonera. Donostiako udalerria. Koordinatuak UTM: X 579435, Y 4794608. Ura udaleko hornidura saretik hartzen da, eta itxeko giltza, kontagailua eta buia kutxa baten barruan daude.

—Diagnostikoa: Iragazkaizpen eta landareztatze lanak egin ondoren, berez azaldu diren igelak ikusi dira, eta baita ugalketa ere (anplexuak eta errunak). Inguruko landaretzak baldintza aproposak ematen ditu Hegoaldeko Zuhaitz Igelaren eskakizunentzat eta, beraz, kolonizazioa egokia izan da.

5. Arpitako putzua:

—Deskribapena: 2000ko urtarrilean egin zen. Usurbilgo udalerria. Koordinatuak UTM: X 578866, Y 4794071. Neurriak: 28 m luze, 24 m zabal eta 1,70 m-ko gehieneko sakonera. Arpidegiatako erreka mendebaldean dagoen ibaiadar batetik hartzen du ura hartune baten bidez eta, bertan, buia bat dago.

—Diagnostikoa: Ugalketarako baldintza egokiak biltzen dituen putzu horretan igel populazio ugariena bildu da eta ugalketa arrakastatsua izan dela egiaztatu da. Nahiz eta etengabeko ur emaria izan, uraren mailak aldaketa garrantzitsuak izaten ditu erreka aldera dauden iragazketen ondorioz. Bestalde, epe luzera espeziarengan ondorio txarra izan dezaketen harrapari aloktonoak ikusi dira, zehazki, zamoia eta karramarroa.

6. Etxebestekeko putzua:

—Deskribapena: 2000ko irailean egina eta 2005eko otsailean iragazkaiztua. Neurriak: 13 m luze, 11 m zabal eta 1,50 m-ko gehieneko sakonera. Donostiako udalerria. Koordinatuak UTM: X 577982, Y 4794806. Ura ondoko errekatik hartzen da ur-hartunearen bidez, eta uraren mailarik hoberena bermatzen duen buia bat dago.

—Diagnostikoa: Ugalketarako baldintza egokiak biltzen dituen putzu horretan igel talde txiki bat bildu da eta, putzua iragazgaiztu eta landareztatu ondoren, ugalketa arrakastatsua izan dela egiaztatu da. Uraren kutsadura arazoak eragin kaltegarria izan dezake igel taldean.

7. Urtetako putzua:

—Deskribapena: A-8 autobidea egiteko harrobi gisa eraiki zen 1974. urte inguruan. 2004ko martxoan iragazgaiztu egin zen eta urte bereko abenduan inguruko hesi bat jarri zen. Usurbilgo udalerria. Koordinatuak UTM: X 577429, X 4794155. Neurriak: Iragazgaiztutako ontziaren neurriak: 19 m luze, 18 m zabal eta metro bateko gehieneko sakonera. Autobidearen beste aldean dagoen iturburu batetik hartzen da ura, baina ez du etengabeko ur emaitzarik; halaber, autobideko azaleko euri ura ere hartzen da.

—Diagnostikoa: Iragazkaizpen eta landareztaren ondoren, berez azaldu diren igelak ikusi dira, nahiz eta, oraingoz, azkeneko denboraldian ez den ugalketarik baieztatu. Autobideko azaleko euri urak ez dirudi kalterik egin dionik.

8. Egiolletako putzua:

—Azalpena 1999ko apirilean egin zen. Usurbilgo eta Donostiako udalerriak. Koordinatuak UTM: X 576773, X 578866, 4794452. Neurriak: 19,5 m luze, 10 m zabal eta 0,60 m-ko gehieneko sakonera. Ura emari txikiko ondoko erreka batetik hartzen da ur

hartune baten bidez.

—Diagnostikoa: Azkeneko ugalketa denboraldian berez azaldutako igelik ez da egiaztatu. Uraren maila urria dela eta, lezka kopuru gehiegi garatzen dira eta zaildu egiten da igelaren ugalketa. Udan, ur-gaineko algak ugaltzen dira eta, ondorioz, putzuaren baldintzak okerrera egiten dute.

9. Artikula aundiko putzua:

—Deskribapena: 2000. urtean egin eta 2005eko urtarrilean eta otsailean iragazgaiztua eta berriro landatua. Neurriak: 18 m luze, 16 m zabal eta 1,20 m-ko gehieneko sakonera. Usurbilgo udalerrria. Koordinatuak UTM: X 576386, Y 4794267. Ura Mendizorrotzetik jaisten den Artikula errekatik hartzen da, ixteko giltza duen ur hartunearen bidez. Uraren maila bermatzeko, kuxteta batean jarritako buia bat dauka. Inguruko itxitura jarri zen 2005eko urtarrilean.

—Diagnostikoa: Ugalketarako baldintza egokiak biltzen dituen putzu hori igelak kolonizatu du eta, putzua iragazgaiztu ondoren, berez azaldutako igelak ikusi dira eta ugalketa ere (anplexuak) egiaztatu da.

10. Arrateko putzua:

—Deskribapena: 2001eko maiatzean egin zen eta 2004ko otsailean iragazgaiztu eta birlandatu zen. Neurriak: 14 m luze, 11 m zabal eta 1,60 m-ko gehieneko sakonera. Usurbilgo udalerrria. Koordinatuak UTM: X 575202, Y 4793619. Udaleko hornidura saretik ur hartune bat dauka eta baita ixteko giltza eta kuxteta baten barruan buia bat ere.

—Diagnostikoa: Berez azaldutako igelak ikusi dira eta, anplexuak eta metamorfizatu berriak bertan direnez, espeziaren ugalketa egiaztatu da; beraz, gaur egun putzu horretan igel kopuru handi bat bildu dela esan dezakegu. Kontrolatu beharrezko arazo nagusiak putzuaren ondoko ezpondaren ezegonkortasuna eta putzuaren inguruetako erabilerak dira, etxeko animaliek igelak harrapatzeko dagoen arriskuarengatik.

11. Egiluzeko putzua:

—Deskribapena: 2001eko abuztuan egin zen eta 2004ko abenduan iragazgaiztu eta birlandatu zen. Donostiako udalerrria. Koordinatuak UTM: X 574755, Y 4794699. Neurriak: 11 m luze, 6 m zabal eta 1 m-ko gehieneko sakonera. Buia duen kuxteta bat dauka ugalketa garaian uraren mailarik hoberena bermatzeko.

—Diagnostikoa: Iragazkaizpenaren ondoren, berez azaldutako igelak ikusi dira eta ugalketa ere egiaztatu da (anplexuak). Nolanahi ere, azpimarratu behar da Mendizorrotzeko iparraldeko magalean eratu den lehen ugalketa gunea dela 80ko hamarkadan desagertu zenetik.

12. Errota berriko putzua:

—Deskribapena: 2001eko azaroan egin zen. Donostiako udalerrria. Koordinatuak UTM: X 579484, Y 4794244. Neurriak: 26 m luze eta 8 m zabal. Hainbat jarduketa egin dira ur ihesak saihesteko. Inguruko errekan (Kanpoeder) egindako hartune baten bitartez hornitzen da.

—Diagnostikoa: Ugalketarako baldintza egokiak betetzen dituen putzu hori igelak kolonizatu du eta azkeneko denboraldian berez azaldu diren igel emeak daudela egiaztatu da. Neurri batean etengabeko uraren bidez konpentsatzen diren ur iragazketak daude. Sakonera oso txikia duenez, lezka kolonizazio prozesu garrantzitsua izan du eta ur garbia duen putzuaren azalera murrizpen nabarmena izan da.

13. Orioko putzua:

—Deskribapena: 2003ko irailean egin zen material iragazgaitza erabiliz. Orioko Udalerrria. Koordinatuak UTM: X 571234, Y 4793051. Neurriak: 20 m luze, 12 m zabal eta 1,50 m-ko gehieneko sakonera. Forma elipsoidala du. Ur ugari jasotzen du Sanjuango uren iturburutik, eta kuxteta batean dagoen buia baten bidez kontrolatzen da ur honen sarrera.

—Diagnostikoa: Berez azaldu diren igelak daudela egiaztatu da eta gaur egun igel kopuru handi batek kolonizatu duela esan dezakegu. Azkeneko denboraldi honetan ezinezkoa izan da ugalketa egiaztatzea. Kontrolatu behar den arazo nagusia harrapari aloktonoen sarrera (zamoak batik bat). Duela gutxi hiritartzeko lanen proiektuarekin lotuta dauden obrak hasi dira inguruan.

Putzu hori Mendizorrotzen tontorraren mendebaldean egoteak igelen ugalketa lekuak urriak diren sektorearen ugaritzea errazten du. Zentzu horretan, 2004. urteko lekualdaketak hasi baino lehen, berez azaldutako igelak zeudela egiaztatu zen.

14. Anoko erreka:

—Deskribapena: Orioko Udalerrria. Koordinatuak UTM: X 571579, Y 4793220. Itsaspera doan errepedeko ertzean dagoen erreka

batean egindako presa txiki bat da.

—Diagnostikoa: Berez azaldutako igel asko ikusi dira, nahiz eta ezinezkoa izan bere ugalketa egiaztatzea. Uretako landaredia desagertzeak kaltea eragin du populazio horren ugalketan.

Putzu hori Mendizorrotz mendigunearen mendebaldean egoteak, igelen ugalketa lekuak urriak diren sektore horren kolonizazioa ekarriko du.

15. Arkumetegiko putzua:

—Deskribapena: Orioko Udalerria. Koordinatuak UTM: X 574340, Y 4795154. Elipsoide formako baltsa txiki bat eta 2004ko azaroan hondeatu ondoren, iragazgaitzeko lanak egin ziren bertan. Neurriak: 13 m luze, 6 m zabal eta 1,5 m-ko gehieneko sakonera. Ura Lezka errekatik hartzen da ur hartune baten bidez.

—Diagnostikoa: 2005. urtean berez azaldutako igelak zeudela egiaztatu da. Oraingoz, ez da ugalketarik egiaztatu. Putzu hori Mendizorrotz mendigunearen iparraldeko magalean egoteak, igelen ugaritze lekuak urriak diren sektore horren kolonizazioa ekarriko du.

16. Etumeko putzua:

—Deskribapena: 2004ko abenduan hondeatu eta iragazgaitu zen. Donostiako Udalerria. Koordinatuak UTM: X 578.526, Y 4.795.622. Neurriak: 8 m luze, 4,5 m zabal eta 1,5 m-ko gehieneko sakonera. Ura Etumeko iturritik hartzen du eta uraren maila kutxeta batean dagoen buia baten bidez bermatzen da.

Diagnostikoa: Oraingoz ez da egiaztatu berez azaldu diren igelik dagoenik, bai, ordea, beste anfibio batzuk daudela, Triturus helveticus, Bufo bufo eta Rana perezi, besteak beste.

Donostia, 2005eko abenduaren 23a.—Rafael Uribarren Axpe, Departamentuko foru diputatua.

(1148) (1632)